ADIERAZIO ONDOKO BAIEZTAPENAK EGIA EDO GEZURRA DIREN.

	1.GAIA	
1	Funtzio periodiko baten batez besteko balioa, positiboa, negatiboa edo nulua izan daiteke.	E
2	Maiztasunaren unitatea c/s da.	G
3	Funtzio periodiko baten balio efikaza, bere batez bestekoa baino handiagoa da beti.	E
4	Funtzio alterno eta sinusoidal baten balio efikaza, maiztasunaren mendekoa da.	G
5	Funtzio alterno baten batez besteko balioa nulua da.	E
6	Funtzio periodiko bat definitu positiboa bada, orduan bere batez besteko balioa eta uhin arteztuaren batez besteko balioa bat datoz.	E
7	Zirkuituen teoria, Eremu elektromagnetikoaren Teoriarekiko hurbilketa bat da.	E
8	Zirkuituen teorian kondukziozko korronteak baino ez dira existitzen. .	G
9	Tentsioa parametro bat da.	G
10	I.E.E. parametro bat da.	E
11	Zirkuituen teoria Sistemen Teoriaren kasu berezi bat da.	E
12	Kirchhoff-en lehenengo legea, edozein ebakidura talderi aplika dakioke.	E
13	Funtzio periodiko baten balio efikaza bere moduluaren balio bera du.	E
	2.GAIA	
1	Zirkuitu baten bipolo pasibo sinple edo ideala, kualitatiboki definiturik gelditzen da , metatu edo xahutzen duen energiaz eta hori egiteko moduaz.	E
2	Transformadore ideal bat elementu pasibo hutsa da.	E
3	Edozein elementu pasibo, barreiatzailea edo metatzailea izan beharko da.	G
4	Goritasun lanparak erresistentzia hutsak bezala onar daitezke.	E
5	Tentsioa, korrontea eta potentzia zirkuituko parametroak dira.	G
6	Korronte zuzenean, elementu barreiatzaileek, potentzia metatzen dute.	G
7	Erresistentzia guztiak koloreen kodeaz definitzen dira.	G
8	Kondentsadore baten karga, metatuta duen energiaren araberakoa izango da.	E
9	Kenelly-ren teorema transformazioa matematiko bat baino ez denez, gerta daiteke fisikoki egin ezin den zirkuitu bat ematea.	E
	3. GAIA	
1	Zirkuitu bat laua da, plano batean edo gainazal esferiko batean marrazterakoan, adarrak korapiloetan baino elkar mozten ez badute.	E
2	Zirkuitu espazial batek ez du sarerik.	E
3	Zirkuitu espazial baten ez du eraztunik.	G
4	Ebakidura talde batek, zuhaitzeko adar bat mozten du beti.	G
5	Sare bat eraztun bat da.	E
6	Zirkuituko zuhaitzeko adar kopuruaren besteko oinarrizko ebakidura talde dago.	E
7	Zirkuitu baten zuhaitz guztiek adar kopuru bera dute.	E
8	Zirkuitu batean, oinarrizko ebakidura talde bi behintzat korapiloak izan beharko dira.	E
9	Oinarrizko ebakidura talde kopurua, korapiloen kopurua ken bat-ekin bat dator.	E
	4.GAIA	
1	Sareen metodoa oinarrizko eraztunen metodoaren kasu partikular bat da.	G
2	Sareen metodoaz zirkuitu lauak baino ezin dira aztertu.	E
3	Zirkuitua lotua da, korapilotik korapilora, zuhaitzeko adarretatik joan gaitezkenean.	G
4	Sare bat eraztun bat da.	E
5	Katebegiak, ko-zuhaitzaren adarrak dira.	E
6	Bide itxia eratzen duten zirkuituko adarren bilduma, eraztun bat da.	E
7	Zirkuitu baten adar talde ireki bat zuhaitz bat da.	G
8	Zuhaitzaren adar kopurua zirkuituko korapilo kopuruarekin bat dator.	G

5.GAIA		
1	Zirkuitu lineal baten bi punturen artean beti existitzen da Thevenin-en baliokidea.	G
2	Zirkuitu bat elkarrekikoa da bere inpedantzien matrizea simetrikoa bada.	E
3	Lineala ez den zirkuitu batean ezin da gainezarpena aplikatu.	E
4	Thevenin-en baliokidea edozein zirkuitu lineali aplika dakioke.	E
5	Thevenin-en baliokidea, tentsio iturri ideal bat izan daiteke.	E
6	Norton-en baliokidea ez da existitzen, inpedantzia infinitua bada.	G
7	Thevenin-en baliokidea existituko da, soilik, inpedantzia nulua bada.	E
8	Erresistentzia bati, korronte zuzenean, potentzia maximoa transferitu ahal izateko, erresistentziaren balioa, gainontzeko zirkuituaren Thevenin-en baliokidearenarekin bat etorri beharko da.	E
6.GAIA		
1	Korronte zuzenean eta erregimen egonkorrean, korronteen kalkulurako, autoindukzioak zirkuitulaburraren jokabidea dauka.	E
2	Korronte zuzeneko sorgailu baten errendimendua, bere indar elektroeragilea eta borneen arteko tentsioaren arteko zatidura izango da.	G
3	Iturri ideal baten errendimendua %100 da.	E
4	Korronte alternoan, $\underline{U} = U\angle\alpha$ fasorearekin, sareko maiztasuna f=50Hz –ekoa dela aurre suposatzen da.	G
5	Korronte zuzeneko zirkuituak beti hobeto ebazten dira ekuazio zirkularren bidez.	G
6	Korronte alternoko zirkuituetan, itxurazko potentzia zenbaki konplexu bat da.	G
7	Ekuazio zirkularren bidez, zirkuitu bat ebazteko, lehenengo zuhaitza definitu beharko da.	G
8	Korronte alternoko zirkuitu batean, potentzia aktiboa, aldiuneko potentziaren batez bestekoa da.	E
9	Korronte alternoko zirkuitu batean, potentzia erreaktiboa, aldiuneko potentzia erreaktiboaren batez bestekoa da.	G
7. GAIA		
1	Sistema trifasiko batean, energia-kontadoreen konexioa bat dator wattmetroen konexioekin.	E
2	Hiru haridun sistema trifasiko batean, fase bakoitzean konektatutako hiru amperemetroek gauza bera adierazten badute, korronteen sistema simetriko eta orekatua da.	E
3	Lau haridun sistema trifasiko batean, fase bakoitzean konektatutako hiru amperemetroek gauza bera adierazten badute, sistema simetrikoa da.	G
4	Sistema trifasiko baten tentsio konposatuak edo lineakoak, beti orekatuak dira.	E
5	Hiru haridun sistema trifasiko baten lineako korronteak, ez dira zertan orekatuak izan behar.	G
6	Hiru haridun izar batean, faseko tentsioak lineakoak baino handiagoak izan daitezke.	E
7	Lau haridun izar batean, neutroko korrontea beti da fasekoena baino txikiagoa.	G
8	Indukzio motorrak, funtzionamendu berdintsua dute sekuentzia zuzeneko zein alderantzizkoko sistema trifasikoa aplikatu.	G
9	Sistema trifasiko baten sekuentzia aldatzeko, fase bi trukatzea baino ez dugu.	E

8.GAIA		
1	Potentzia erreaktiboaren konpentsaziorako kondentsadore industrial bat, bere potentzia erreaktiboaz "Q" eta tentsioaz "U"definiturik gelditzen da.	G
2	Kondentsadore industrial batean, potentzia erreaktiboaz gain kapazitatea "C" ere adierazi behar da, erregimen iragankorrerako beharrezkoa baita.	E
3	Kondentsadoreen bildumak triangeluan konektaturik egonkorragoak dira izarrean baino.	E
4	Triangeluan konektaturiko kondentsadoreen bildumak, izarrean konektaturikoak baino merkeagoak dira.	G
5	Hobe da beti konpentsazioa tentsio altuko (T.A.) aldean egitea tentsio baxuko (T.B.) aldean baino.	G
6	Energia erreaktiboaren konpentsazio "zentrala", "taldekakoa" eta "banakakoa" baino merkeagoa da.	E
7	Mailaketa erabilienak, 1:1:1 serie aritmetikoa, eta 1:2:2 serie mistoa dira.	E
8	$\cos\varphi$ -tik $\cos\varphi'$ -ra potentzia erreaktiboaren hobekuntza egiteko, potentzia erreaktiboa, potentzia aktibo unitateko: $Q = tg\varphi - tg\varphi'$ da.	E
9	Industri instalaziotan, potentzia erreaktiboaren konpentsazioa, konpentsatu beharreko kargarekiko paraleloan egiten da.	E
10	Potentzia erreaktiboaren konpentsazioak, ondorio bezala, potentzia faktorearen hobekuntza dakar..	E
9. GAIA		
1	Edozein laupolo atebiko bat da.	G
2	Edozein atebiko laupolo bat da.	E
3	Edozein atebiko lineal eta pasiboa, elkarrekikoa da.	E
4	Edozein atebiko elkarrekikoa, pasiboa da.	G
5	Transformadore monofasiko ideal bat, atebiko elkarrekiko bat da.	E
6	Transformadore monofasiko ideal bat, atebiko simetriko bat da.	G
7	Transformadore monofasiko bat laupolo bat da.	E
8	Inpedantziako parametroetan, atebiko bat simetrikoa izango da $Z_{12} = Z_{21}$ bada.	G
9	Atebiko bat elkarrekiko da, inpedantziako parametroetan, $Z_{12} = Z_{21}$ bada.	E
10.GAIA		
1	Zirkuitu bat lehen ordenakoa izango da, lehen ordenako, ekuazio diferentzial linealak ematen baditu.	E
2	Elementu metatzaile bakarra eta parametro konstanteak dituen edozein zirkuitu, lehen ordenako zirkuitua da.	E
3	Zirkuitu batek "sarrera nulua" daukala esango dugu, kitzikapen iturri askeak ez daudenean.	E
4	Zirkuitu bat "egoera nuluan" badago bere erantzuna bortxatua baino ez da izango.	G
5	Lehen ordenako zirkuitu baten erantzun naturala " esponentzial negatibo" bat izango da beti.	E
6	Lehen ordenako zirkuitu baten denbora konstantea, elementu metatzailearen mendekoa da soilik.	G
7	"$t = 6\tau$ " denbora tarte batean, elementu metatzaile baten energia erregimen naturalean, nulua dela onar daiteke.	E